

BERBARO ELKARTEAREN BOLETINA

Letra Tipua
Freeport

0. ALEA

1993 ekainak 30

BAZKIDEENTZAKO HIRU HILABETEKARIA

Lau urte bete ditu honez gero Durangon euskararekiko hainbat jarrera aldaketa eragin duen Berbaro Elkartek. Lau urteotan ekimen ugari jorratu ditugu, komunikabideak aireratu dituztenak baztuk, (bertso afariak, haur-literatur aretoak, badakizu egizu kanpaina etabar) eta antolaketan parte hartu dutenak bakarrik dakitenak beste asko eta asko (dohainezko itzulpen zerbitzua, DHK eta Eraz aldizkariaren sorrera, txoznaren antolaketa, euskaldun gidakoei, Egunkarikoei, Ibilaldiari etabarri laguntza emana, mintegia etabar).

Bazkideok izan duzuen informazioa eskutitzez gutxi, eta komunikabideen bitartez izan da, baina beti, labur eta ez lar zehatza. Izan ere, entzun izan dugu sarritan honako galdera hau: "baina zer egiten

du Berbarok bertso afarietaz aparte?"

Gaurtik aurrera, Berbarok egiten duenaren berri zuzenagoa izango duzue, informazio sakona eta osoa jasoko duzue martxan jarri dugun hiru hilabeteroko boletin honekin. Zer egiten ari garen, zer egingo dugun, zuen laguntzarik behar dugun, gure lanarekin lortu ditugunak etabar.

Esan beharra dago boletin honetako informazioa ez zaizuela informatzeko soilik ematen, egiten duguna, denon artean egiten dugulako baizik.

Hara hor, Berbaroren boletina, Zuzendaritza-Batzordean eta azpildetan gabiltzanok eta zuek bazkideok hurbilago izango gaituena.

*Pedro Pablo Arrinda
Berbaroko lehendakaria*

Neurrizko gaia

Elkartearen berri argi eta ozen boletin baten bidez daiteke errezen gure "Top-Secret" hura historira joan zen orain hiru hilero duzu zuzen-zuzen zu ere konplizea bihur zaitezen.

Euskara kontseiluan hor gabiltz jo ta su gure "jefeen" lana ez da broma aizu trikimailu eta hitz politetan maisu zeurez ezagutzea nahi baldin baduzu bertso afarietan izango gaituzu.


Geratu ez zaitezen ez jakinen penaz astean behin hor duzu notizia egaz aldizkari bat bada izena du Eraz zeuretzako egina argazki eta berbaz nondik nora gabiltzan badakizu beraz.

Gure "txantxulloetan" bazen hainbeste gai ta zuek bustitzea hoixe genduen nahi ikus dezazuen guk ez dugula hartu jai. Hau irakurri duzu sinisten dizut, bai, ba orain kieto! etxean hurrengoaren zai!



Herritarren artean egiteko lanaren proposamenaren aurrean "Herri lan"aren filosofia bultzatu zuen Berbaro Elkartek eta euskararen presentzia ziurtatu propaganda orrietan eta programan. Erreka garbitzen ere izan ginen noski...

LOKALA



Mugimendua ibiltzen frogatzen omen da: lau urte eta lau toki ezberdinetan kokatuta.

Hasieretako CAREko gela hartan edo Lankide Aurrezkiaren aretoetan biltzen hasi ziren euskaltzale haiek, gutxik somatuko zuten elkarteak izango zuen hazkunde eta mugikortasun hori.

Handik Udalak utzitako Abadetxeko laugarren solairuko bulegora, geroago Durango Irratiko beharrak zirela eta, utzi behar izan genuena, gaur egungo bulegora etortzeko: 35 m², PROEM-eko arduradun eta ikasleen lanaz ornituta (mila esker berriro ere).

Momentuz, areto honetan konpondu beharra daukate gure dinamizatzailleak eta taldeek, euren lanak eta batzarrak aurrera ateratzeko.

1.994: V. URTEURRENA. LOKAL BERRIA ?

Hori da Zuzendari-Batzordekoen asmoa, eta horretan ari gara azken aspaldi honetan. Zertarako?, hainbat arrazoi eman daiteke. Bota ditzagun batzuk.

- Jendearekiko hurbiltasuna lortzeko, erreferentzia puntu bat bihurtuz.
- Bilerak eta lana nasaiago egiteko aukera izateko.
- Berbarokideok gure farratxoak egiteko **TXOKO** aproposa edukiteko.
- Hitzaldiak, Bertso Afariak eta beste hainbat ekin-tza bertan egin ahal izateko.
- Taberna batez, beste finantziabide bat lortzeko (Durangoko beste elkarte eta erakunde batzuk egin duten bezala: Rugby, Alpino, C. Extremeño, C. Andaluz, C. Palentino, PNV, PSOE, HB, EA...).

Argi dago horren beharra. Arazoa lokal egokia lortzea da: neurri onekoa (Bulego, Txoko eta Taberna), ondo kokatua eta ez garestiegia. Esagutzen al duzu horrelakorik ? Deitu 6201918 telefonora.

barruko antolaketa

Ezaguna izango duzue honezkero Berbaroren antolakuntza, Zuzendaritza-Batzordea, azpitaldeak etabar.. edoze-lan ere azpitaldez azpitalde azaltzea ko-menigarria ikusi dugu eta hori egingo dugu ahalik eta laburren.

Zuzendaritza-Batzordearen berri emanez hasiko gara beraz; Zuzendari-tza-Batzordea egun 9 lagunek osatzen dute, Batzar Nagusiak aukeratutakoak 4 (lehendakaria, lehendakariordea, idaz-karia eta diruzaina) dinamizatzaillea, az-pitalde bakoitzeko ordezkari bana. Ho-nez gainera hilean behin batzar batean parte hartzeko prest dagoen edozein eus-kaltzalek har dezake parte.

Lan talde honen helburua da, elkarteari dagozkion erabaki orokorrak hartzea, beti ere sakoneko erabakiak Batzar Nagusira eraman behar direla kontuan izanik.

UDALEKUAK EUSKARAZ

1992ra arte Udalak antolatu izan dituen udaleku irekiak elebidunak izan dira teoriarik, baina teoriarik. Ez da sekula planteatu euskara hutszko udalekurik, giro euskalduna izango duenik. Hori dela eta, 1992 urtearen amaieran Berbarok udaleku euskaldunak antolatzearekin zion. Aisialdi talde bat, Euskara Kontseiluko lehenakaria eta Haur eta Gazte Kontseiluko lehenakariarekin batu eta proiektua martxan jartzeko lanetan hasi ginen.

Lehenengo batzarrean proiektu euskaldun baten ideia zehaztu,

beste aisialdi talde batzuei aurkeztu eta horrela Alkartasuna, Iñurri, Urkia eta Berbaroren artean antolatzearekin genion.



Gotzone Duñabeitia izan da proiektua diseinatzen aritua den berbarotarra. Urte erdi eman dute honezkero papeleratuta dagoen proiektu hori lantzen eta iadanik, dei zabala egin ostean, B eta D ereduko 120 haurrek eman

dute izena. Ziur gaude izan den udalekurik euskaldunena eta dibertiduna izango dela honako hau.

gure eraginez

Berbaron praktikak egiten hiru hilabete eman ditu Iurretako LH Institutoko administrari ikasle batek. Urtean urtean enpresatara praktiketan joaten diren horietakoa izan dugu Iduurre Uribezubia, oraingoan gurekin izan duguna.

Lan fina eginenez, Elkarteari laguntza handia emanenez, bere praktikak Berbaron egin ditu.

Euskara zabalatzeko eta indartzeko ezezik elkarte honetako gauza askotarako ere balio duela konturatu gara oraingoan.

P i n o n d o
Etxeak antolatuko ditu bideo emanaldiak 93 urtetik aurrera. Azken hiru urteotan Berbaro Elkartek antolatu ditu umeentzako bideo euskaldunen emanaldiak. Zapatuero, arratsalde, 40 bat umeri euskarazko pelikula berri eta ezagunenak ematearekin diogu. Baina Pinondo Etxeko ordezkariarekin izaniko batzar baten ondorioz, eurek hartu dute ardura hori. Beraz, aurrerantzean ere izango dogu Durangoko haurrentzako zapatueroako entretenigarri euskaldunik.

Ekainaren 11n
Berbarok antolatutako Ipuin Labur eta Bertso Paper Lehiaketaren sariak eman ziren. Larogei bat partaideren artean hamabi izan ziren sarituak. Sari-banaketa saioari Taun-Taun taldeak eman zion hasiera "Lam eta Lorea" antzezlanarekin, jarraian Ander Erzillak bertso irabazleen letrei musika jarri eta abestu egin zituen. Epaimahaiko ordezkariak sariak banatu eta, amaitzeko "luntxa" izan genuen.

Ekintza honek datoreen urtean ere jarraipena izango duelakoan gaude, garrantzizkoa baiteritzogu euskaraz idazteko motibazioan sakontzea.

Euskara eta zientziari buruzko hitzaldia eman zuen maiatzaren 12an Durangoko Arte eta Historia Museoa, Jesus Ugalde, EHUKo errektoreordeak.

Zientziari buruzko historia laburra eginez eman zion hasiera ekitaldiari. Gaur egungo aurrerapen zientifikoekin jarraitu zuen eta amaitzeko euskaraz elkarte zientifikoetan eta Unibertsitatean duen presentzia eta etorkizuna aztertu zituen.

Bildutakoak gustora atera ziren gaur egun euskaraz zientzian duen egoeraren azterketa sakona entzunda.

Maiatzaren 28an Bertso Afaria izan genuen Durangoko Kurutzia Ikastolan, Berbarok antolatuta. Millan Telleria eta Sebastian Lizasok botariko bertsoak goxatuz, Lanperri eta Milikuk soinu eta panderoaz lagunduta sorturiko musika dastatuz hirurogei bat lagun izan ginen. Musika eta bertsoak ez ziren ez, dastatu genuen bakarra, ikastolako sukaldariak prestatutako afariak ere uda aurreko "regimen" batzuk ahaztu erazi zituela konturatu ginen eta.

Dena dela, bertso saioak arrakastatsuak direla kontutan izanik uda ostera sorpresatxo bat prestatzen ari gatzazkizue.

DHK - ERAZ ASTEKARIA-

Urtebete pasatxo da DHK (Durangaldeko Herri Komunikabideak) elkarte martxan jarri genuela. Aspaldikoa ganuen herri komunikabideen arloan -prentsa lokala deritzon honetan, batez ere iharduteko asmoa. Eta beste erakundeekin elkarlanean aritzeko ateak itxita ikusi genituen, geureari eustea erabaki genuen. Baita lanean hasi ere.

Zuzendaritza-batzordea batu, egitasmoaren txostena burutu, elkarre eta erakundeetan aurkeztu, talde profesionala osatu, hamar herrietako informatzaile eta kolaboratzaile sare lotu eta finantziabideak finkatzeari ekin genion.

Zortzi hilabete luze izan genituen guzti hori sendotu eta aurrera ateratzeko. Hasierako proiektua gal-

bahetik pasatu eta genituen baliabideetara egokitu ondoren, apirilaren 23an, ERAZ astekariaren 0 zenbakia argia ikusi zuen. Ordutik hona, hutsik egin gabe, astero-astero izan dugu ERAZ hamar herrietako txoko eta bazter askotan.

Jadanik 3.000 harpidedunen bueltan gabiltza eta oraingo erronka harpidedun horien gusto eta premiei erantzutea da, gure hasierako helburuei eutsiz, jakina.

Askok dira hobetu beharrekoak eta zeregin honetan hustuko ditugu gure indarrak, beti ere, astekaria gero eta kalitate handiagoz janzteko helburuarekin.

Erredakzio kontseilua osatu dugu hobekuntza asko etorri daiteke-

elakoan, eta banaketari ere errebasotxo bat eman beharko diogu izan ditugun akatsak zuzentzeko.

Batzutan juxtu-juxtu gabiltzala eta, talde profesionala sendotzen eta berregituratzen ari gara eta, azkenik, guretzat hain arlo inportantea izanik, eskualdean apenas jorratuta zegoen euskara hutsezko publizitatea lantzeko eginahalak bikoiztu egingo ditugu.

Guzti hauek ezin daitezke egun batetik bestera egin, eta espero dugu aipatutako hobekuntzak apurka apurka nabarmenago izango direla irakurlegoaren begietara.

ERAZekoek, behintzat, belarriak erne izango ditugu zuengandik etorriko diren hobekuntza guztiei jarmon egiteko.

Egizu bazkide zure ingurukoren bat eta bialdu 267 postakutxara.

Izena: _____ 1. abizena: _____
2. abizena: _____ Jaioteguna: _____
Helbidea: _____
Herria: _____ Tfnoa: _____
Lana: _____ Laneko Tfnoa: _____
Bankua: _____ Kontu zenbakia: _____

UDALEKO EUSKARA KONTSEILUAN LANA

Urtebete t'erdi da euskara kontseiluan lehendakaritza betetzen dugula.

Hasiera, hasieratik euskararen inguruko gaia behar den moduan aztertu eta lantzeko, berarentzat bereziki ZERBITZUA ETA BATZORDEA sortzeko ahaleginetan gabiltza. Lehengo ekina norabide honetan, udal ezberdinetako teknikariek, HPINen laguntzaz, EUDEL-en informazioagaz eta geure lanarekin egin genuen. Proposamen hura Durangoko alkateari aurkeztu genion eta honek bidea zabaldu du EGITASMO BATERATU BAT prestatzeko.

Une honetan Udaleko Euskara teknikariarekin batera EGITASMO honi itxura ematen gabiltza, udazken

aldera Udaleko Osoko Bilkuran ma-haigaineratuko duguna.

EUSKARA BATZORDE ETA EUSKARA ZERBITZURANTZ zabaldu dugun bide mardul honetaz gain beste lantxo batzuk ere egin ditugu pausoka-pausoka. Hitz bitan esateko, HERRI-LAN EGUNAREN filosofia eta euskararen presentzia ziurtatu, erdara hutsezko iragarki subentzionaletan salatu, talde ezberdinak dagozkien kontseiluetan egituratu, hizkuntza eskakizunen jarraipena, ekintza ezberdinei onarpen eta ikuskatze lana egin....labur esanda, gure herriko erakunde nagusia den Udalen jarduna euskalduntzen lagundu.